



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

1- BEGIAK PARREZ-PARREZ

Begiak parrez parrez bihotza negarrez (bis)
Halaxe joaten nintzan maitia zugandik dolorez (bis)

Ama zuriak neri parian pasata (bis)
Ez dit agurrik egin maitia burua jirata (bis)

Ama zuriak neri ez agur eiteko (bis)
Zer palazio dauka maitia zuri emateko (bis)

Palazio eder bat haitzaren gainian (bis)
Ez da euririk sartzen maitia ari ez dunian
Ez da haizerik sartzen maitia ez dabilenian.

2- EGUNSENTIA

Eguzkiaren argia leihopetik sartzean
pozez ta alaitasunez esnatuko gera.
Txorien abestiekin alaitutako eguna
gizonen gorrotoakin hondatuko da eguna.

Ibiliko gera alkarri kalte eginaz
ustez lagunik handienak aurrez ondo hitz egina.
Batzuen izerdirekin besteek diru eginaz
egia esan duena giltzaperera emanaz.

Gauza horiek ikusteko nola esnatzen gera
gauza horiek egiteko nola jaikitzen gera.
Txoriek alaitutako eguna hondatzeko
hobe genduke ez esantu eta bertan gelditu lotan.

Ibiliko gera....



3-.HABANERA

Berriro itzuliko balitz iragan denbora arrotza
berdin konsumi nezake bainila gozo artean,
itsaso urrun batetan irudimena galdurik
udaberriko euritan arrosak pizten ikusiz.

Osaba komertzianterik ez nuen izan Habanan,
pianorik ez zegoen bizi nintzen etxe hartan,
neskatzen puntilla finak udako arratsaldetan,
errosario santua neguko gela hotzetan.

Ezpainek gordetzen dute ezpain bustien gustoa
desiozko hotzikarak etsipenaren tamalez,
gauak zelatan dakusa kontzientzia biluzik
badoaz ordu geldiak gogorapenen hegalez.

Jaio ginen, bizi gera ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro kariatik ari da urruntzen,
Antillak zintzilik daude argazkien paretetan
karta bat idatziko dut norbaitek erantzun dezan.

4-. IPARRAGIRRE ABILA DELA

Iparragirre abila dala askori diot aditzen,
eskola ona eta musika hori hoiekin zerbitzen.

Ni ez nauzu ibiltzen kantuz dirua biltzen,
komediante moduan.
Debalde festa preparatzen det
gogoa detan orduan (bis).

Eskola ona eta musika, bertsolaria gainera,
gu ere zerbait izango gera horrela ihornitzen bagera.

Hatoz gure kalera, baserritar legera,
musika horiek utzita.
Errenterian bizi naiz eta
egin zaidazu bisita (bis).



5-. LORETXOA

Mendian larrartean aurkitzen da loretxo bat
aurrean umetxo bat loretxoari begira.

Loreak esan nahi dio: umetxo, aska nazazu!
jaio naiz libre izateko ta ez loturik egoteko.

Umetxoak ikusirik lorea ezin bizirik
arantzak kendu nahi dizkio bizi berri bat eman.
Orduan izango bait du indarra eta kemena;
orduan emango bait du ugari bere fruitua (bis).

6-. BEHIN BATIAN LOIOLAN

Behin batian Loiolan erromeria zan,
hantxe ikusi nuen neskaxa bat plazan;
txoria baino ere arinago dantzan
huraxe bai polita han politik bazan
huraxe bai polita han politik bazan.

Esan nion desio senti nuen gisan,
harekin hizketa bat nahi nuela izan;
erantzun zidan ezin atsegin har nezan,
adituko zidala zer nahi nion esan
adituko zidala zer nahi nion esan.

Aurkitu ginanian inor gabe jiran,
koloriak gorritu arazi zizkidan;
kontatuko dizuet guztia segida,
zer esan nion eta nola erantzun zidan,
zer esan nion eta nola erantzun zidan.

Dama polita zera, polita guztiz, bai!
baina hala ere zaude oraindik ezkongai;
ezkon gaitezen biok, esan zaidazu, bai!
Ni zurekin ezkondu? Ni zurekin, jai, jai!
Ni zurekin ezkondu? Ni zurekin, jai, jai!



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

7-. MENDIAN GORA

Mendian gora haritza, ahuntzak haitzean dabilta,
itsasoaren arimak dakar ur gainean bitsa.

Kantatu nahi dut bizitza usteltzen ez bazait hitza,
mundua dantzan jarriko nuke Jainkoa banintza (bis)

Euskal Herriko tristura, soineko beltzen joskura
txori negartiz bete da eta umorez hustu da.

Emaidazue freskura ura eskutik eskura
izarren salda urdina edanda bizi naiz gustura (bis).

Euskal Herriko poeta kanposantuko tronpeta
hil kanpaiari tiraka eta Hutsarik kolpeka.

Argitu ezak kopeta penak heuretzat gordeta
goizero sortuz bizitza ere hortxe zegok eta (bis).

Mundua ez da beti jai, inoiz tristea ere bai,
baina badira mila motibo kantatzeko alai.

Bestela datozen penei ez diet surik bota nahi,
ni hiltzen naizen gauean behintzat egizue lo lasai (bis).

8-. EGIA DA

Egia da, egia da, nik ikusi dudalako.
Egia da, egia da, porque lo he visto yo.

Arratseko oskorritik goizeko oskorriraino
gauean ez da entzuten ez da entzuten gauean.
Gauean ez da entzuten, gauean ez da entzuten
gauean ez da entzuten... sorgin musika baino.
Egia da....

Gezurra dirudi baina sano ta fresko gaude.
Gezurra dirudi baina sano ta fresko gaude.
Musika da denboraren denboraren musika da
musika da denboraren... sekretuaren jabe.
Egia da...



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

Gazte odola duenak festa eta algara,
Gazte odola duenak festa eta algara,
hamabost urtez oraindik oraindik hamabost urtez
hamabost urtez oraindik... hasi berriak gara.
Egia da.... (bis).

9-. SALAMANKARA

Aita Jainkoak egin banindu zeruetako giltzari
azken orduan jakingo nuke atea nori ireki.

Lehenengo aitari, gero, amari, gero, anai arrebari
ta azken orduan, isil isilik nere maite politari (bis).

Gazte gaztetatik aitak ta amak praile ninduten nonbratu
eta estudioak ikasitzera Salamancara bialdu.

Salamancara nindoalarik, bidean nuen pentsatu
estudiante tunante baino hobe nuela ezkondu.

Ezkondu nintzan, bai ni ezkondu bai eta ere damutu,
praka beltzetan hari zuria ez zait sekulan faltatu.

10-. TXANTXIBIRIN- SALTZEN SALTZEN

Txantxibirin, txantxibirin gabiltzarian, Elorrioko kalia,
hamalau atso tronpeta jotzen zazpi astoren gainian (bis).

Astoak ziren txiki-txikiak, atsoak berriz kristonak.
Nola demontre konpontzen ziren zazpi astoren gainean? (bis)

Saltzen saltzen txakur txiki baten karamelua
está muy bien esaten du konfiteruak (bis)

Cuando vamos a Otxandiano Andramari egunian mekaguenlamar
tomaremos chocolate oriñal zahar batean (bis).



11-. XALBADORREN HERIOTZEAN

Adixkide bat bazen orotan bihotz bera
poesiaren hegoek sentimentuzko bertsoek antzaldatzen zutena.
Plazetako kantari bakardadez josia
hitzen lihoa iruten bere barnean irauten oinazez ikasia ikasia.

Nun hago, zer larretan Urepeleko artzaina
mendi hegaletan gora oroitzapen den gerora ihesetan joan hintzana (bis)

Hesia urraturik libratu huen kanta,
lotura guztietatik gorputzaren mugetatik aske sentitu nahirik.
Azken hatsa huela bertsoerik sakonena,
inoiz esan ezin diren estalitako egien oihurik bortitzena bortitzena.
Nun hago....

12-. IDUZKI DENEAN

Iduzki denean, zoin den eder itzala!
Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala:
egiten duzula mila disimula, iñorant zirela;
erraiten duzula bertzetaik naizela, faltsuki mintzo zira.

Zazpi urtez beti jarraiki zait ondotik,
Erraiten zautala, ez dut bertze maiterik;
Hitzer fidaturik nago tronpaturik, gaixoa tristerik
ez dut eiten lorik, ez jan edan onik, maitia, zuregatik.

Oi! ene maitia, nik ere zuregatik,
pasatzen dizut nik, zonbeit sabeleko min;
ezkonduz zurekin samur ait'amekin behar nindeite jin
ez dakit zer egin, ez eta nola jin, nik neure etxekeokin.

Oi! ene maitia, nun duzu izpirituia,
fediaren jabe aita deruakazuia?
Atxikazu fedia, maita bertutia, libra kontzientzia;
munduko bizia labor da, maitia, ez zaitela kanbia!